



ENEKO GORRI
EUSKARA
TEKNIKARIA

Ongi etorri?

Argiki erran dezagun: ez dut maite idazki horren gaia. Ez dut maite, gai horrekin ez naizelako eroso senditzen eta militante naizenetik ditudan printzipio asko zangopilatzen dituelako. Baina gure etorkizuna seriozki baldintzatzen duen heinean, ondoko le-roetara ekarri nahi nuke hala ere.

Hiru hilabeteko itxialdiaren ondotik, uda osoan gure bazterrek gainezka egin dute. 2019an “turismoa barnekaldean eta urte osoan” garatuko zutela zioten hautetsi berdinek erraten digute orain “doitu” behar dela. Turismo kontrolaezin horrek bere zakuan dakartzan kalteen artean, lurraldearen erakargarritasunaren areagotzea da.

Datuak hor dira: urtero, 3.000 pertsona datoz bizitzera 300.000 biztanle dituen 3.000 metro koadroko lur zati batera (Lapurdi, Baxe Nafarroa, Zuberoa). Parisko erretiratu zaharren figura topikoaz haratago, 20-49 urte arteko bikotea da nagusi. Hots, aktiboak eta familiak. Gaur egun, Ipar Euskal Herrian bizi den biztanleriaren % 42,8a ez da Euskal Herrian sortua. Konfinamenduak hiritar exodo berri bat sortu du: hiru hilabetez telelana esperimentatu duten dirudunen partetik eskaera berri frango jasotzen ari dira tokiko etxe agentzietan.

Ez da fenomeno berria. Baina geroz eta jende gehiagok pairatzen ditu presio

horren eraginak: herrian bizitzeko ahalik ez duten gazteek, lurraren desjabetzeaz mehatxatuak diren laborariak eta oro har espekulazioak presionatutako herritarrek. Harrigarria da Ipar EHko biztanleria zabal batek diagnostikoarekin bat egitea, baina soluzioak hain gutxi aipatzea. Eskuin muturreko erretorikan ez lerratzearen beldurrez behar bada?

Dena dela, Euskal Herria beti izan da harrera eta pasaia lurraldea. Horrek egokitu du gure nortasun kolektiboa eta kultura. Besteekin nahasteak dakarren aberastasunaz jabeturik, ez ditzagun ukatu bi estatuen asimilazio prozesuak. Hots, migrazio fluxuek toleranteago eta multikulturalago bihurtzen bagintu, bikain. Baina gureru bizitzera datozen %91,5a frantses estatukoak izanki, ez ote du horrek azkartzen jadanik indarrean den dinamika bat?

Adibideak ez dira falta gure etorkizunean duen eragina ilustratzeko. Ekin-tzaile garenok errealitatea aldatzea amesten badugu, gai horri ere heldu beharko diogu. Euskal herritar berriak amesten dugun herria eraikitzen lagun gaitzan, ez dugu jasan behar. Ez dugu mugarik nahi eta aniztasunaren errespetua dugu oinarri. Inklusio eredu berriak asmatuz, transmisio kanalak indartuz, diruaren erreinuari eraso eginez, Euskal Herri barneko turismo estrategiak diseinatuz... lor dezakegu. Baina bada lan! ●

Colón



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Urriaren 12an hispaniarrek jai dute. Baina herritar gero eta gehiagok besta-egun horren funtsa salatzen du, Ameriken “deskubritzea” baino, bostehun urte iraun duen lurralde ultramarinoen ustiaketa basatia baizik ez zela izan ondorioztatuz. Salatzaileen lehen lerroan, bistan dena, Mexiko, Peru edo Kolonbiako autoktonoak, hots gure haurride nahuatl, azteka eta maya, besteak beste. Las Casasen eta Colónen berunezko tailuak kentzea xede dute, 1989tik hara Europa ekialdeko lurraldeetan Lenin eta Stalinenak idoki ziren bezala. Damurik gabe...

Irakurri dut nonbait, Mexiko hirian, urriaren 12aren bezperan, udalak Colónen estatua atera duela, arraberritzeko asmoz. Baina bertako andere auzapezak adierazi du, agian etorkizunean, ez dutela bere lekuan berriz ezarriko... eta AMLO presidenteak bere aldetik, Vatikanuari eta Espainiari galdatzen die, amerikar kontinenteko arimarik ez omen zuten indigena guztiei barkamena eskatzea.

Euskaldunok ere badugu burua makturtzekoa: Colón eta ondoko konkistatzaileekin ausarki ibili ginen eta Amerikaren errearen hatzak ageri dira gure etxe eta hiri-erdi askoren fatxadetan.

Atx Etxebeste jauna! ●